

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO EN VASCUENCE
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA



Delegado para el Suplemento
en euskara
MARCELINO GARDE

XV^o gn. urtea
147^o gn. zenbakia

Iruña - 1981 - Azaro-Abendua

Franq. conc.
N.º clas. 34/60

Director de la Institución
Príncipe de Viana
FERNANDO REDON HUICI

eta lurrean pakea...

Pakea! Bai itz ederra, bai itz maitagarria: Pakea!

Loreak, intza; txoriek, aizea; gizonok, berriz, pakea bear dugu. Pakea gure baitan, gure inguruan, gure bizi guzian; eta bizi onen ondoan ere.

Eguberri Eguna pakearen eguna da. Guri Pakea eskeintzera etorri zela Jinkoaren Semea oroitzen dute, egun auetan, kristauak. Eta kristauak ez direnek ere pakea ospatzen dute, mundu guzian, Eguberri.

Pakea! Bai ote da gaur jendeen espaiñetan geiago erabilli oi den itzik? Pakea aipatzen dute «zuriek», «gorriek», «beltzek». Badirudi erreka-bazterretako ta bide-ertzetako arri ta arkaitz ber-berak ere «pakea» deadarka ari direla.

«Pakea! Pakea!, baiña pakerik izan ez!» kantatu zuen antziñako Igarle edo Profeta batek.

Ori gertatzen zaigu guri ere gaurko munduan, ez dugula pakerik. Pakearen billa joan omen dira ipar-amerikatarrak eta errusitarrak; or dugu, bitartean, pakearen egun auetan, Poloni urrikalgarria.

Iñork baiño obeki dakigu euskaldunok pakea zein den gauza ederra den. Napoleon onera tiroka agertu zenez gero, karlistak direla edo liberalak direla, «auk» direla edo «beste oriek» direla, zenbat odol ez da alperrik ixuri Euskalerra'n! Zenbat amen begi-ondo ez dira negarrez legortu? Zenbat gaiztakeri ez da gure erriaren gainera jautsi?

Betor gure erri ontara lenbai-len pakea; betor mundu guzira; betor gu guztion biotzetara. Ez bait diteke munduan pakerik, lendabizi pake ori gizakumeon biotzetan edatzen ez ba'da. Eguberrian, ez dezagun aztu: Jainkorik gabe pakerik ez da.

EGIZKO ZORIONA!

Neguko gau erdian
Argia sortzen zaigu;
mendez-mendeko Illuna
Egun-senti aldatu.
Belen'go Aurtxo maite,
zaite gutaz kupitu;
egizko Zoriona
gu artean zabaldu.

I. OLABEAGA

Deabrukerizko «Jaiotza»



Egitazko Gernika bezala, Picasso'ren «Gernika» puskaturik ere, «jaiotza» bat egiteko. Ez Biziazen «Jaiotza», Eriotzarena baizik: DEABRUKERIZKO «JAIOTZA», nere adiskide batek esan oi duenez

Eta ez zaio arrazoirik falta adiskideari: Ama Birjiña deadarka; lurrean San Jose, illik, txikiturik; Jesus Aurtxo, buruz beera; idia, zaldia. Ez faltatzearren, ez zaio izarrik ere falta, naiz bonba bat izan...

EUSKAL

ERRIKO LEIOA

JABE GABEKO TABAKO GORRIXKA

Ogeita amasei milla tabako txorta, izkututa zeudenak, arkituak izan dira Noain'go etxe azpi batean. Itxuraz, norbaitek an gordeta zeuzkan, gero garestiago saltzeko asmotan; baiñan, iñork ez daki tabako ori norena den, au da ez dela aren jabea agertzen. Arrapatutako erre-belarra guzia gorriska erakoa da.

Izkutuan ekarri, izkutuan gorde, ta izkutuan saltzeko asmoa zituen giza-joa, ara non gelditu den deus ere gabe.

EJERZIZIOAK EDO GOGO-JARDUNAK EGIN DITUZTENEN KOPURUA

Millaka izan dira Naparroa'n, Ejerzizio Espiritualak edo Gogo-jardunak aurten egin dituztenak. Ortarako badaude leku berezi auek: Burlada, Oharritz, Tudela, Huarte, Xabier, Gerendiain, Codés ta El Villar.

Ia zapi milla napar izan dira lau eguneko gogo-jardun oietakoak egin dituztenak.

Esan leike, gaur askoren giroa ez dela orrelakoa, ez bait dute euki nai arremarik Elizarekin: baiñan, ikusi dugunez, badira Eliz-giro barruan ibilli nai dutenak ere.

EZIN USTEKO NAPARROA ONTAN EZ GAUDE MAKAL

Neurritik gora gabiltz; ikus.

Muskaria'ko nekazari batek, udare aundi bat sortu-arazi du Traslapuen-te'ko baratzetan; kilo ta 100 gramoko udarea!

Santakara'n ere egin dute neurrik gorako beste zerbait, 58 kiloko kalabaza edo kakutxa sortu dute.

Arakil Erroz errian, berriz, azanori edo arbi-gorri aundi bat sortua dugu, 650 gramoko ale bikaña.

Ez da aski. Aurten ere, larantxak eta guzti ezin usteko Naparroa ontan.

Aipatutako Tudela'n eta baita ere Iruña'n, bi eta bost urteko naranjazuaitzek eman dituzte naranja ale batzu. Nunbait aurtengo urte bero ta legorrak ongi etorri dira zuaitz oientzat; zailla izango da, aurten bezala, datorren urtean ere emen naranjaleak sortzea, zuaitz oiek alako giro bero ta legorra bear izatea bait dute, naranja-ale gozo ta ugariak emateko.

Aren asmoa, Iparraldean adieraztea emengo Euskal Erria'k nola dabilz Autonomi bideetan. Ordañetan, guk ere pozez artuko ditugu ango eskualdunen berriak.

«Bozkario handi batekin etorri gira», erran digute. Eta, «Onki xin, anayok!», ñardesten diegu, edozein muga baiño zaarrago den gure mintzo zaarrez.

ARALAR'KO ESMAILAK AZKENEAN NON?

Itzuli dira, itzuli, Iruña'ra, Aralar'ko Saindutegitik ostu zituzten bitxi ikusgarri ta balio aundikoak, Aralar'ko Aldare Nagusian, lauki eder batean egon oi zirenak.

Ta orain eztabaida au sortu da: Denok ikusi ta bere aurrean otoiz egiteko, non egon bear luke berriz ezarrita? Non, berriz lapurtzeko arriskuan egon ez dedin?

Iruña'n egon bear duela diotenek, au diote: emen aukera geiago izango lutekela ikusi nai duten guziek; eta, gañera, Aralar'en baiño, babes obea, berriz lapurtua izan ez dedin.

AGER

«AGER» ALDIZKARI BERRIA

Mugaz beste aldean asi da agertzen «Ager» izeneko aldizkari berri bat. Euskalerrri'ko bi aldeetako berriak emateko.

ASKI OMEN GERNIKA'Z



Au ez da margo-lana; au bai, au da biotz-miña ematen duen Gernika

España'ko Gobernuak, Picasso'ren «Gernika» Madrid'era ekarri arte, ez du izan pakerik. An daukate «Gernika» ori, «El Prado» izeneko zumardian jauregi berezi batean ezarrira. Eun milla baiño geiago omen dira margo-lan ori ikusi duten madritarrak.

Ulertzen ote dute margo-lan edo pintura zail ori?

Ulertzen ote dute, beintzat, margo-lan orren gogo-barnera sartu nai digun erakusketa?

Erakusketa ori zer den? Auxe: «Gauza gaiztoa dela gerra». «Gerra guztiak direla gaiztoak». «Oso gauza gaiztoa izan zela gure azkeneko gerra».

Ez dakit jendeak ori ulertu duen; baiña, ori edo orren inguruko zerbait ulertu dute izparringilari edo albistari batzuek, aspaldi «Gernika»'z leporaiño daudela esaten asiak bait dira. «Zabalkunde edo propaganda geiegi egin zaio «Gernika»'ri». «Eldu omen da, Gernika ez geiago aipatzeko ordua».

Laster aspertu dira; laster gogaitu dira «Gernika» ikusteaz. Lau egun ezin jasan izan dute Gernika'k sortzen duen biotz-miña. Berrogei urte damazkigu guk Gernika'ren samintasuna sufritzen, ezer esateko eskubiderik gabe.

«Gernika» nai zuten. Laster aspertu dira Madrid'en Gernika'z!

Aralar'en berriz ikusi bear dugularen alde daudenek onela diote: aspaldiko urte luzeetan Aralar'en egona dela; eta, gañera, kuttun maitagarria delakoz. Eta berriz lapurtua ez izateko, gaur dauden aurrerapenakin, ori errex lortu leikela.



D. Juan Manuel Arza, Napar Aldundiaren Lendakariak, pozik erakusten digu Aralar'ko laukiaren Irudi ederrena

NOAIN'GO UR-BIDEA ARRISKUAN

Esan dezagun «orain 50 urte direlarik» orixe gertatu zela, eta apez napar jakintsu bati ezker, zutik dago oraindik Noain'go ur-zubi ederra.


Ain zuzen, Iruña'ko Aiuntamentuak erabaki zuen esandako ur-bidea lurrera botatzea ta, ortarako subasta baten deia egin zuten.

Orren kontra altxa zen On Onofre Larunbe'k, itz auek esanez:

«Gure oyanak zugaitzik gabe gelditzen zaizkigu; gure oroit-arriak ere lurreratzen ari zaizkigu, bildurtzeko eran... Noiz arte egon bear dugu gure asarrea azaldu gabe, ta ezertxo ere egin gabe?»

Noain'go ur-bide zoragarri ori guztiz galtzeko arriskuan daukagu; ta ori, oroitarri orrek duen jatortasun ta edertasun ikusgarria eduki arren. Iruña'ko Catedral edo Eliz Nagusia'ren sarrera egin zuen Ventura Rodriguez famatuak, berak egiña bait da Noain'go oroitarri ikusgarria ere.

Noain'go ur-bidea bukatuz gero, gure aurrekoek jai audiekin ospatu zuten; ta arro zeuden orduko naparrak onela abesten:



Jainkoari ta apez jakintsu bati esker, oraindik gaur-egun zutik ikusten dugu Noain'go ur-zubi arrigarria

Iparragirre ta sozialistak

TIERNO GALVAN IRAKASLEAREN IRAKASPENA

Madrid'en Udaletxean edo Ayuntamientoan sozialistak dira nagusi. Tierno Galvan irakasle ongi ezaguna dute bertan Alkate.

Ba..., joan den Azaro ontan, omenaldi ederra eskeiñi dio Madrid'go Udalak Iparragirre bertsolariari. Izan ere, Madrid'en abestu bait zuen aurreneko aldiz Iparragirre'k «Gernika'ko Arbola», 1853'gn. urtean, «San Luis» izeneko kafetegian.

Pakearen eta Askatasunaren zabaltzaile izan zen mundu guzian Iparragirre. «Iparragirre'ren Gernika'ko Arbola, erri guzieren elkartasunaren eta erri bakoitzaren askatasunaren goratzarrea da», esan zuen Olaizola'tar Imanol, Euskal Gobernuaren ordezkariak, jai ortarako Madrid'a joanak.


Tierno Galvan Alkatea mintzatu zen gero. Ona beraren esakizun batzuk:

«Iparragirre esatea eta pakea esatea, dena gauza bera da. Pakea eskeiñi zion mundu guziari Iparragirre'k. Pakea eskeintzen dio, gaur bertan, munduari Iparragirre'ren «Gernika'ko Arbola»'k. Pakea bait da «Gernika'ko Arbola» ere. Pakearen babesean bakarrik, Gernika'ko Arbola'ren kerizpean bakarrik, loratu ditezke gaurko mundu ontan kultura ta askatasuna».

«Gure esker ona, diktaduraren azpian bere izkuntza, bere erri-tasuna eta bere nortasuna gordetzeko gai izan den Euskalerr'iari, Gernika'ko Arbola bezain sendoa den Erri bikain orri».

Bai; arrazoi dute Olaizola'k eta Tierno Galvan Irakasleak: Gernika'ko Arbola'ren frutuak pakea eta askatasuna dira. Orrexeatik abesten diogu guk gure biotzetako indar guziaz:

«Eman da zabal-zazu munduan frutua...»



Noain'en dugun zubi ederra,
eder bai, ta ikustekoa!
Bere gainetik ura darama;
bere azpitik ardoa.

Egia da Iruña'ri mesede galanta egin ziola, erriak bear zuen ura bertaraño ekartzea.

Eta ortaz gañera, or daukagu, or, edertasunezko bere ikuspegi jatorra.

Geldi bitez, bada, Noain'go ur-bide orren aurrean, artutako erabakia lurrera eramane gabe. Gogoratu ditezela erri agintariek, Naparroa'n ez dela gelditzen zutik, oso-osorik genituen oroitarrietatik bat bakarrik ere.

Ta ur-zubi ori lurrera bota bearrean, zaindu dezagula ta berritu beetik gora bear den bezala.

Uste dugu, esan bezala ala gertatuko dela».

IRLANDA'N, ONDAMEN ETA ODOL IXURITZEAREN AURKA

Lurralde ori, aspaldiko urteetan Inglatera'rengandik askatu naiean ta borroka bizian gañera dabillega, denok dakigu. Ekintza bildurgarri ortan dabilen taldearen izena «IRA» dugu.

Gaur bat il eta biar bestea, orrela eguna joan eta eguna etorri gelditu gabe; ta erailketa oiekin batera, bonbak edo lergailluak nun nai bazter guziak izorratzen: etxeak, berebillak etab., aidean eta sutan.

Ikusirik bide ortatik ondamera ta odol-ixurtzea besterik ez datorrela, ta etorkizun beltza askorentzat, ango Eliz-Buruak itz auek esan ditu berriz:

«Erreboluzio edo iraultza orreri laguntzen ari diren kristauak, pekatu astunak egiten ari dirala».

DIPUTAZIOAK IKASTOLEI DIRU LAGUNTZA

Naparroa'ko Diputazioak iya irurogei milloi laurleko diru-laguntza Ikastolei banatzeko erabakia artua da. Diru-laguntza ori, aurtego ikastaro onen iru illabeteko ordainketa izango da; ondoren, beste sei illabetekoen diru-laguntza etorriko da.

Amalau milloi ta laureun milla leurreko laguntza, 120 ikas-gelarako izango da, ume txiki edo eskola-aurrekoentzat; ikasgela bakoitzarentzat, 120.000 laurleko; ta ortik 62 milloi arteraño diru-laguntza, goragoko mallaentzako izango da, au da E.G.B.'koentzako.

BILBO'KO LIBURUAREN XII-GN. AZOKA

Abendua'ren 10'ean, Bilbo'ko Liburu-Feriaren zabalaldia izan zen. Berrogei liburu-txabolak ezarri zituzten klase askotako liburuak azalduz.

Feriaren asieratik agertu ziren euskal agintari batzuk: Labayen, Eusko Jauritzakoa, Makua Bizkai'ko Diputadu Nagusia, Jon Kastañares Bilbo'ko Alkatea, eta auekin batera Feriaren antolatzaileak.

Leku bakoitzean egonaldi txikia egin ondoren, Elerti edo Literaturari buruzko sari eratueta mintzatu zen Liburutegi eta Erakustokien Zuzendari Orokorra. Egia esateko sari ederrak jarri dituzte: milloi pezetakoa, eleberri edo nobela luze sarituari; milloi erdikoa, lirika, saio ta antzerkiko alorretan; azkenez milloi laurdenekoa eleberri laurbentzat.

Lenengo egunetan, denbora txarra; azken egunetan, ordean, jendea ugari.

ZAKURRA, GIZONAREN LAGUN OBERENA

Galizi'ko bazterretan gertatu berria da.

Txakurra dela gizonaren lagun zintzoena, berriz erakutsi digu zortzi urte dituen «Milord» izeneko txakur batek.

Antonio Vázquez einzlariari galdu zitzaion «pointer» ori Portugal'eko mendietan, antxe eguna einzan pasatuz gero.

Illabere ta erdi geroago, arriturik gelditu zen jabea etxeko atean artzarkaria zakur galdua ikusirik. Irureun kilometroko bidaldia egin du «Milord» zintzoak Orense'ko Kartelle errira eldu arte.



Bere etxeko aurrean Antonio Vázquez ain zintzo agertu den «Milord» zakurrarekin

ZALDIBAR'KO ETNOGRAFIA LAUGARREN ERAKUSKETA

Bizkai'ko Zaldibar irian laugarren aldiz izana dute Etnografia Erakusketa. Gabon egunetan zear zabaldurik izan dena. Erakusketa ontan jarririk zeuden gauza guztiak Euskalerrri zabalean ja-

AITA SANTUA ERRUSI'RA?

Aita Santua beti da jakingarri. Aita Santu izate utsak badu alako zerbait, eta —kristau izan edo ez— mundu guziak begiratzen dio arretaz Aita Santuari. Eta mundu guziak entzuten dizkio, itzal aundiz, esaten dituen itzak.



Aita Santuaren begitartean kezka

Izan ere, maitasunaren gozotasuna, argiaren dirdira eta pakearen itxaropena ekarri oi ditu beti Aita Santuaren itzak. Mundua, berriz, pakearen, argiaren eta maitasunaren egarri egon... Ain egarri gaiñera!

«Zauritua izan nintzenez gero, beste era batera ikusten dut mundua», esan du asko ez dela Il'gn. Juan Pablo'k. Jesukristo'k esandako ura datorkit maiz gogora: «Bizia galduko du bizia gorde nai duenak». Ta ez omen du berriz zauritua izango ote denaren bildurrik. Eta mundu guzira bere ibilketak jarraitzeko asmotan dago.

Ali Agça izeneko turkitar gazte batek zauritu zuen Aita Santua. Nor ote dago mutil orren atzean izkutaturik?», galdetu zuen orduan munduak.

Orain mutilaren amak karta bat idatzi omen dio Aita Santuari, semearentzat barkapena eskatuz. Andre ori ama da eta, maitasunaren alorrean, dena legezko zaio ama bati. Baiña, orrelako karta, Aita Santuaren eskuetara eldu baiño leenago agertuko omen da aldizkari batzuetan. Orrelako presak..., zertarako? Zein ote dabil orain andre gaixo orren atzetik? Aita Santuak barkatu zion, zauritua izan zen une berean, țiroa eman zionari. Zer nai dute orrelako presekin? Espetxetik —ezer egin ez ba'lu bezala— preso kalera ateratzea? Aita Santua postura txarrean, egoera zaillean jarri-araztea?



Beste ama neketakoa, Aita Santua il nai zuen turkitar gaztearena

Bein Aita Santuari «Errusi'ra joango al ziñake?» galdetu zioten; eta, «Zergatik ez?» erantzun zuen berak.

Galdaketa orren ondorean, jakin ditugu Poloni'ko gertakizunak. Askatasunaren billa jeiki dira langilleak, ta oñazetan eta odoletan daukagu Poloni gaixoa.

Munduko agintari nagusiek —errusiarrek eta ameriketarrek— uts egin dute Poloni'arentzat pake-bide billatzekotan.

Bijoa len-bai-len Poloni'ra eta Errusi'ra Aita Santua, iñork bilatzekotan berak bakarrik billa eta aurki bait dezake pake-bide ori. Bijoa, len-bai-len, eta Jainkoa lagun bezaio!

sotakoak izan dira, eta denak zein baiño zein zaarrago eta antziñakoago. Zazpireun eta geiago ale ikusi dira an: edergarriak, etxeko lanetarako erabilgarriak eta esku-langintzan erabiltzen zirenak, etab. Zaarragoak, berriz, bi anfora 3000 urte dituenak eta Gipuzkoa'ko Zegama iri inguruetan idoro zirenak.

Azken egunean, igandean, J.R. Ur-

kijo mintzatuz geroz, San Martín senar-emazte ta Juanito Garmendia epaile zirenek aukeratu zituzten tresna sari-tuak.

Zegama'ko Atxukarro'tar Iñaki'k sari bat artu zuen, berak aurkeztu bait zituzten antziñako anfora biak.

Eta Sariak banatuta, eman zitzaion bukaera Zaldibar'ko VI-gn. Erakusketa orri.

«MARI BELTZA»

PIO BAROJA'k idatzia
MENDIKU ZAARRA'k euskeratua

Baserri illunaren atarian bakarrik eta zure anai-txoa besoetan, urrutiko mendi ta zeru zurixkari begira zaudenean, zer duzu gogoan?

«Mari Beltza», Maria beltza deitzen zaituzte Errege egunean jaio ziñelako, ez beste gauzagatik; «Mari Beltza» deitzen zaiztuzte, baiñan arkumetxoa ibaiko uretatik orobat garbituta, zuri-zuri ateratzen den bezala, zuri-zuria zera zu, ta ille-gorria, udaran gari-uzta bezalakoxea.

Zaldi gañean, zure etxe aurretik joaten naizeanean, ni ikusi bereala, iges egiñez, nigandik izkutatzen zera, nigandik, goizaldi otz artan, zu mundura etorritakoan, zu jaso zindudan mediku zaarrendandik alde egiñez.

Jakingo ba'zenu nola oroitzen naizen! Sukal-deko sutondoan zai geunden. Zuretzako ziren soñekoak berotzen ari zen zure amona, malkoak begietan zituela, suari begiratzuz pentsakizunetan. Aristondo'ko zure osabak, eguraldi ta uztaren goraberataz mintzatzen ari ziren. Ni, berriz, sarri-sarritan joaten nintzen zure ama zegoen gelatxora; gela sabaitik zintzilik ikusten ziren artaburu-xortak. Zure ama oyu-samiñetan ikusirik, Joxe Ramon zure aita on-ona, emazteari zaindu ta lagundu nairik; bitartean, leiotik zear nik ikusten nituen mendiak zuri-zuri elurrak estalita, baita ere zozo-saillak aidean.

Denak zai-zai izanez gero, azkenean etorri ziñen zu mundu ontara, etsi-etsi karraxi bizi batean. Zergatik, mundu ontara etorri bezain laster, gizakumea negarrez? Geunden lekua, mundu au baiño gozagoa ote?

Esaten nizun bezala, karraxi bizi batean agertu ziñen; iru Erregeek, gertaera orrekin jabetuz, bosteko bat utzi zuten zure burutxoa estaltzeko txano ttipiaren barnean. Agian duro ura izanen zen, zure amari laguntzeagatik lan-saritzat etxekoek eman zidatena.

Eta orain izkutatzen zitzaidan, ni agertu ta bereala, nere zaldi zarrarekin igarotzen naizenean. Al Baiña ni ere zugaitzen artetik izkutuan, ni ere zuri begira egoten naiz. Eta badakizu zergatik? Esanen ba'nizu, parre egiñen zenidake... Ni, «Medicu zaarra», zure aitona izan nezakena; bai, parre egiñen zenuke, esan ba'nizu...

Ain ederra ikusten zaitut! Esaten dutenez, eguzkiak jota aurpegia beltzarena duzu ta bular aurrealdea kozkortasunik gabeko lau-laua; egia izanen da, baiñan zure begiek udazkeneko egun-sentiaren ezti-aldia daukate, eta zure ezpaiñak, berriz, gari-soroetan sortzen diren zapa-loregorrien antzekoak dituzu.

Ona ta maitagarria zera, gaiñera. Orain dela egun batzu, asteartez azoka-eguna zelarik, ¿oroitzen al zera?, zure gurasoak kalera jetxiak ziren, eta zu —anaitxoa besoetan arturik— soroan barrena zenbiltzen.

Egun artan, aurra aldarte txarrekoa zegoen; zuk, bera jolastu ta poztu naiez, beiak erakusten zenizkion: «Gorriye» ta «Beltza», sudur-xistuka an inguruan larrean belarra jaten ari zirenak, bere isats luzez ankak astintzen zituztela.

Mutiko madarikatuari esaten zenion: —«Ikus «Gorriye»... tuntun ori... adar oiekin...; galda eza-



Zer duzu gogoan, «Mari Beltza», urrutiko mendi ta zeru zurixkari begiratzen ari zeranean?

kiok, «maitia»; zergatik ersten dituzu begiak, zure begi zoro aundi oiek? Eta ez erabili isatsa!».

Eta «Gorriye» zuregana urbiltzen zen, eta zuri begiratzuz abereen begirada betillun ortaz, burua makurtzen zizun, bere kopeteko ille kixkurrak maiteki ikutu zenizkion.

Ondoren, inguratzen ziñen beste beiarengana, eta beatzez bera erakusiz, esaten zenion aurrari: «Beltza da au... Uuum! Au beltza... Au gaiztoa... Au ez dugu maite; Gorriye, bai». Eta zurekin batera, aurrak birresaten zuen: —«Gorriye, bai!» Baiña, bat-batean gogoratuz egun artako aldarte txarretaz, umea asi zen negarrez.

Eta nik ere negar egin nuen, zergatika jakin gabe; zaarrok, noski, aur-biotza daukagu bularbarnean.

Eta zure anaitxoa ixil-arazteko, txakur jolastariarengana jo zenduen, bai ta jo zenduen —ollar ponpoxo baten inguruan— lurrari mikoka zebiltzen olloengana ere; eta, azkenik, batera ta bestera korrika zebiltzen txerri ergelengana.

Aurra ixilik bezain laster, pentsakor gelditzen ziñen, zure begiak urrutiko mendi urdintsurruntz begiratzuz; baiñan, deus ere ikusigabe ikusi gabe... Zeru zurixkan zear zijoazen odei zurixkari begiratzuz; mendiak estaltzen zituzten orbelei; zugaitzetako ostoa gabeko adarrei begiratzuz... Baiñan, begi aiek ez zuten deus ere ikusten...

Zerbait ikusten zuten, bai; baiñan, barneko bazterretan, gogoan, nor-beraren izkutuzko lekuan, amets eta maitasunen sor-lekuan.

Gaur zure baserri aurretik igarotakoan, kezkatu ziñela nabaitu dut; zugaitz onbor baten gañean eseririk, utzi-giro batean murginduta bezala, menda-belarra ortzetan txetuz...

Esaidazu, «Mari Beltza», urrutiko mendi ta zeru zurixkari begiratzen ari zeranean, zer duzu gogoan?

Nora joan ez zekiten kartak

(IPUIA)

J.L. GARTZIA-FALZES'ek egin
ORONOTZ'tar BI'k euskaratu

Serbitzari zintzoak dira benetan Korreotako jendeak. Bein baiño geiagotan entzunen zenduen noski karta guziak eldu direla, zuzen, bakoitza bere lekutara; eta korreora bo-teak izan ez direnak bakarrik galtzen direla bidean. Egia da ori dena; egi andia. Egia izan da, bederen, orain artean, joan den asteko egun bateraño... Ona zer ikusi bear nuen arriturik joan den astean.

Ni biajantea nauzu; titulodun biajantea. Eta badakizu guk anitz eta maiz idatzi bear izaten dugula. Leku askotara gañera, egunoroko ogia era egokian irabazi nai ba'dugu.

Ala, Naparroa'ko erri guzietara idatzi bearra gertatu zitzaidan joan den astean, sortu-berria den gauza baten zabal-kunde edo propaganda erri bakoitzeko dendari denei igortzeko.

Nere lantokian nik badut idazkari edo sekretaria. Neskatxa polita, bera; Arakil ibaia-
ren ertzeko errixka batean jaoia; langille yayo, txukun, egokia. Eta gaur-egunekoan gaztea. Askotan egon izan naiz neskatil orrekin, Naparroa euskal-erri ote den edo ez ote den, elkarrizketa beroan esamesaka.

—Tori, neskatu, esan nion joan den aste ortan. Zabalkunde-orri auek denak banatu bear ditugu eta, torizu, ba, liburuxka au: Naparroa'ko erri guzien eta erri bakoitzeko dendari guzien zerrenda luze bat besterik ez da. Liburuxka ontako pertsona bakoitzari bialdu eizkiozu, len-bai-len, zabalkunde-orri auek, eta ikus dezagun Naparroa'ko dendariak zer erantzuten diguten.

—Erderaz ala euskeraz jarri bear ditut zuzenbideak?

—Tira! Orain ere, ire betiko matrakarekin!

—Ez orixe! Soilki direkzioak erderaz ala euskeraz jarri bear nituela jakin nai izan dut, eta orixe galdetu dizut. Ori izan da, oraingoan beintzat, nere matraka guzia. Erderaz, ala euskeraz?

—Arraioa! Erderaz, neska, erderaz! Eta al duzun erarik argiengan!

—Anitz ongi, nagusi jauna! Erderaz idatziko ditut: baiña, neri ez gero, emendik iru-lau egunera, iskanbillekin etorri... ¿E?

Erran bezala, igorri zituen zabalkunde orri aiek denak, milla ta geiago sobreetan, nere idazkariak Naparroa'ko erri guzietara:

—Zuk agindu bezala, erran zidan irripar batez.

Trankil gelditu nintzen ni, bialdutako zabalkundeari erantzunaren zai, sobre guziak, iru-lau egunetan, Naparroa'ko erririk izkutueneraño elduko zirelaren ustean. Baiñan, bai zera! Iruña'n zeuden denak geldituta!

—Etorri zaitetz, otoi, nere lan-gelara (despatxura) eskatu zidan biaramonean Korreo-etxeko Nagusiak.

—Zer gertatzen da, ba?, galdetu nion urrutizkiñez.

—Gertatu... gertatu... Zure karta oien direkzioak oker, anitz oker, jarriak daudela gertatzen da! Edo, arrigarriago litzakena: eskutitz oietako erriak ez direla Naparroa'koak. Orrelako erririk ez da Naparroa'n, gizona!

—Eeeee?

—Eran dizuna da, orrelako izenik duen erririk ez dela Naparroa'n.



—Mingaña kanpoan ba duk, seilluak bereala izarriko ditut.

—Arranea!, erran nuen nik nere barnean. Egin zidak biri-bizikoren bat bere neskamotz orrek oraingoan!

Eta urrutizkiñaren beste aldean neuken Korreo-Zuzendari arrituari eskatu nion:

—Erran zaidazu, mesedez, zer gertatzen zaien nere eskutitz zorioneko oiei...

—Erran dizudana, besterik ez zaie gertatzen; Naparroa'n orrelako erririk ez dugula; eta ez da, nere ustez, orrelako abizenik (apellidorik) Naparroa'ko erri guzietan ere!

—Ez dira, ba, izen eta abizen oiek euskaraz idatziak egonen...?

—Euskaraz? Ez, jauna, ez! Erdaraz daude; erdara garbian. Baiña, euskaraz ala erdaraz... ez da ori kontua; erran dizudana da: Naparroa'k ez duela orrelako erririk, eta Naparroa'ko erriek orrelako abizenik ez dutela!

—Irakur eidazu, otoi, zuzenbide oietako bat; edozein.

—Edozein? Auxe bera irakurriko dizut: Sr. D. Antonio Hayedo, LO BAJO, Nav. Entzun beste au: Sr. D. Bautista Casadearriba, LOBERA, Nav. Eta euek ere: Sr. D. Fermin Pueblodelpuente, LA PALOMA, Nav. edo Sr. D. José Bajolapeña, PIEDEMONTE, Nav. Zuk ezagutzen al duzu Naparroa guzian orrelako erririk edo orrelako abizenik?

—Arraioan neska!, erran nuen nik uste gabe oiuka.

—Nola? Zer?, galdetu zidan aski asarre Korreo-gizonak!

—Deusez, deusez; barkatu! Ez nintzen zurekin ari. Izen eta abizen oiek denak naparrak dira; erdaraz idatziak egotea, beste erririk ez dute. Euskaraz idatziak egon bear zuten, baiña erdaraz idatzi ditu nere idazkari jostalariak.

—Zeeer?

—Erderaz daudela! Euskaraz egon ba'ziren ez genduen batere oztopo-biderik izanen. Jarriko dizkizut euskaraz: Antonio Hayedo, LO BAJO, dion lekuan, jarri Antonio Fagoaga, BERA; Bautista Casadearriba, LOBERA, ordean, jarri Bautista Goyenetxe, OTXAGABIA; Fermin Pueblodelpuente, LA PALOMA, euskaratu Fermin Zubiri, UJUE; eta ez Jose Bajolapeña, PIEDEMONTE, baiña Jose Arbea, MENDABIA.

—Kooontxo!, erran zuen Korreo-Nagusiak. Ez ba'da ikusten, ez ta siñisteko! Eta orain, zer egin genezake kartamordo guzi onekin?

—Baa, euskarara itzuli denak, bana-banan.

—Aizu, milla baiño geiago daude mordo ontan!

—Bai, Naparroa'n orrelakoa da; milla beintzat, bai, guxtienez; eta denak euskaraz idatzi bearko ditugu; ez dugu bestela elkar ulertuko; ez ba'dugu egiten, ez da eskutitz oietako bat bere joan-tokira elduko...

—Ez da elduko, ez. Eta bere buruarekin izketan zion gizagaxoak: Auxe duk, auxe! Ez nian sekulan orrelakorik pentsatuko! Erdarak ez dik balio Naparroa'n! Ez dik balio, beintzat, korreoa bere bideetan ibiltzeko: Eskutitzak beren lekutara elduarazi nai ba'dugu, euskaraz idatziak ekarri bear dizkitek beren zuzenbideak! Ez nian inñolaz ere sekulan orrelakorik siñistuko, nere begi ber-berekin ikusi izan ez ba'nian!

—Ez ta nik ere, erran nion; ez nuen nik ere, ikusi ez ba'nu, gure Naparroa ain Euskalerriz zenik siñistuko.



—Ez nuen nik ere, ikusi ez ba'nu, Naparroa ain Euskalerriz zenik siñistuko.

BERTS LARIA

PIO BAROJA

OGEITA BOST URTE DIRA
DONOSTIAR
NOBELA-EGILLEA
MADRID'EN IL ZELA



Baroja idazlea bere azken urteetan

Ogeita bost urte bete dira, aurten, Pio Baroja Madrid'en il zela; ta ala ere, orrenbeste urte ondoren, bere ospe aundia ez da batere gutxitu. Bere eriotzarekin galdu bai gendun garai artako nobela-egillerek aundiena; orrengatik, egun auetan eta leku askotan bilerak eta itzaldiak antolatu dituzte Pio Baroja goraltzeko.

Donosti'ko omenaldian, izlari oietako bat Julio Caro Baroja izan da, idazlearen illoba dena; bere osabaren jakingarri ugari agertu zizkigun.

Beste izlari, Pelay Orozko'tar M. jauna; onek bezain sakon eta ongi, Pio Baroja'ren lanak ezagutzen duen gutxi daude, gure artean. Bere itzaldian gai au aztertu zuen: «Euskal-giroa Baroja'ren idaz-lanetan».

Pelay Orozko, gazte-gaztetandik aritua izan da Baroja'ren lanak aztertzen. Argi ta garbi azaldu zituen Baroja'ren euskaltasuna, adieraziz Baroja'k idaz-lanetan beti agertu izan dituela euskaldun gizonen giroa, oiturak eta euskal gaiak; eta beti jokatu Euskal-erria'ren alde. «Ez da sortu Euskal-erria'n —bukatu zuen Pelay Orozko jaunak— Baroja bezain idazle ospetsu ta goi- maillakorik».

Baita ere mintzatu ziren Elizalde jauna ta Lasagabaster jauna; azkeneko onen mintzaldia euskeraz egiña izan zen.

DUNIXI

Unamuno'k ere

Bat baiño geiago arriturik geldituko da urrengo bertsoak ikusiz gero.

Nola? Unamuno famatuak Jesus Aurrari jarritako bertsoak? Eta euskeraz, gainera? Orrela da, orrela.

Bilbao'n jaio zen Unamuno, 1864 gn. urtean, eta il Salamanka'n, 1936 gneko. «Gabon-zar» gabean, ain zuen.

Munduan zear ospetsua den filosofo aundi onek, bein edo bein euskeraz idafzi zuen. Eta bein, Gabonaren poza ospatzeko, euskera neurtua erabili zuen; berak esan bait zuen bezala: «gauza ain aundia zebratzeko, ez da berba ederragorik geure euskera baiño».

Gabon abestia

Lurra apaindua dago
elurrez betia,
jai aundia dala-ta,
ederrez jantzia.

Zergatik lurra dago
ederto apaindua?
Zeren Jesus ederra
mundura eldu da.

Zeruko aingeruak,
txoriak bezala,
danok kantatzen dute
Jauna eldu dala.

Eta kantatzen dute
—ta poz aundiagoz—
Jaungoikoaren jaiotza
geure euskera gozoz.

Eskatu biar dogu
poza geure etxian,
ta lurrean pakea
gizonen artian.

Gaur da pozaren gaba.
Kanpoan otza da;
baña, geuren barruan
asko da berua.

Goazen, goazen anaiak,
Aurra ikustera;
goazen, goazen, lenbailen,
anaiak aurrera.

M. UNAMUNO

Neguari

IBAI-ERTZ

Mendi gallurrak elur zuriz ta
izotza or erreketan,
Udazkeneko orbel igarrak
usteldu dira denetan.
Amonak otzez, aitonak berdin,
aurtxoek otzikaretan,
beste gauzarik ez det nabaitzen
urteko aro onetan.

Zugaitz guztiak soildu zaizkigu
eta loreak zimeldu;
txoriak ere, kantuz zirenak,
ia erabat ixildu.
Txantxagorriak alaitasunik
oraindik ez digu galdu;
o, txori maite, ire abestiz,
ik zoriona zabaldu.

Egunak labur, gauak luzeak,
eta eguzkia zuri;
iru gauz auek batere pozik
ez digute sortzen guri.
Abere, zugaitz eta gizonak
inor ez gerade guri;
azken arnasak gugan dirala
orain alaxe dirudi.

Gure indarrak ez ditugu, ez,
gutzizko ikusgarriak;
ementxe gaude, bizi geranak,
kokildurikan jarriak.
Odolak oso oztu zaizkigu
ospelez oin, belarriak...
Sasoi eder bat ekar deigula
datorren UDABERRIAK!!



EGUBERRIAK KANTUTAN

EGI'TAR BI

Badatorkigu gaiñera negua. «Orixe»'k «Euskaldunak» izeneko bertso-lanean esaten duen bezala, «moztu du urteak adarra». Baserritarra ba'zera, aspaldi ikusiko zenduen aurten sukaldeko paretan euli bat baiño geiago buruz bera legorturik. Eulia buruz bera jartzean, negua badatorrela ziur omen da. «Orixe»'rena dira bertso aukerak ere:

**Gaua luzatzen ari, nabarmentzen otza;
goizean ote ez ote zokoan izotza;
ormen ipurdiz gora euli lepamotza:
negua urbil dalako siñale zorrotza.**

Badu Euskalerrri'an negu zuriak bere edertasuna. Baditu egun pozkarriak gure baserrietan bizi diren jendearetzan. Egunduetan aundiarena, nagusiarena, Eguberri-Eguna: aiton zarraren inguruan famili guzia biltzen den eguna. Badirudi, Abendua irritxiz gero, dei gozo bat ateratzen dela goizero gure baserrietako tximinietatik:

**Ator, ator, mutil, etxera,
gaztainak zimelak jatera...**

Noraiño ez ote da iristen gure tximinietatik dei gozo ori? Zenbat euskaldunek ez dute aurten bertan, ez noski belarriekin baiñan bai biotzarekin, dei ori Amerike'tatik, Afrika beltzetik, eta munduaren beste aldeko Japon'dik entzungo?

Ator, ator, mutil, etxera...

Urrutiko seme oiek ez dute etortzerik izango. Etorriko dira ordea bertagoko guztiak. Ta bezperatik asiko dira, pesta-giro alai-alaiean, atez-ateko, eskeak kantuz egiten. «Olentzaro»'rekin erri batzuetan; «Olentzaro» gabe, besteetan; baiña, euskal bertso zaarrak erabilliz denetan. Entzun dezaiegun gure mutillei.

ÑAPARROA

Goazen Baztan aldera. Mutil gazteak dabiltz eskean. Etxe bateko atarian gelditu dira. Badakite etxe barnean ardoa badela, baiña ez dakite «zemana», au da, zenbat izanen den bakoitzarentzat. «Txikito» bat besterik ez dute eskatzen; ematen dute, gaiñera, «txikito» ori beste batekin ordainduko dutelaren itza.

**Egun ttuntun, biar ttuntun,
etzi ere ttuntuna.
Etxe untan arnoa bada,
guk ez yakin zemana;
zemana den yakiteko,
bear dugu ttantta bana.
Aingeruak gara, zerutik eldu gara;
boltsa badugu, baiñan dirurik ez.
Konbida gaitzazu txikiño batez,
giuk ere eiñen zaitugu bertzeño batez.**



GIPUZKOA

Alda gaitezen salto aundi batez Gipuzkoa'ra. Kantu onek artzaia mendi gaiñetik ibarrera salto batez jetxi zala esaten digu. Goazen gu ere orrelako salto batez Bozate'tik. Elgoibar'era. Langilleak dira emen eskaleak, ola-gizonak. Gaur-egun askok ez dakite «ola» bat zer dan. Burni-meazkia (minerala) burni biurtzen zan lantokiari esaten zitzaien «ola». Eundaka ziran Euskalerrri'an olak; baita Naparro'an ere. Ain zuzen, naparra zan Euskalerrri'an azkena itxi zan ola: Betelu'ko «Goikola». Baiña, entzun elgorbaitarrei:

**Ai, au gabaren ikusgarria!
Jesus jaio da Belen'en.
T'etxe onetan sartu ote dan
billa gabiltza gu emen.
Erdiok gera ola-gizonak,
beste erdiok arotzak.
Limosnatxo bat egitekotzat,
bigundu bediz biotzak.
Goitik asi-ta beraiñoakoak
artzai zarraren saltoak;
bildots andia lepoan dula,
altza eziñik orpoak.
Belaunbikoka joan giñaden
Nazaret'ikan Belen'a,
geuk adoratu bear gendula
Jesus Maixua lenena.**

BIZKAIA

Elgoibar'tik errez joan giñezke Bizkai'ko Markiña'ra. Arrate eta Kalamua mendien artean gora eta beera igarotzen dan bidea-zear. Markiña'n mutikoak ikusiko ditugu eskean. Kantari aukerak ere, ¿nola ez?, kantu-erria bait da edonon Euskalerrria. Aspaldi esan zuen Voltaire'k berak «Euskalerrria, Aunamendian kantari ta dantzan diardun erri bat» dela. Ara nola abesten duten mutiko bizkaitar aukerak:

**Eta bart Belen'en,
eta bart Belen'en,
jaio da Jesus nazaren.**

Jesus'en jaiotzak poza ta alaitasuna dakarzki mundura: gizonentzat, gizon guztientzat; baiña, ez gizonentzat bakarrik. Entzun Markiña'ko mutikoei:

**Salvadorea jaio da, bai ta
geugaz bizi da munduan;
korraletako ardiak bere
dantzan zenbiltzen orduan...**

Pozik mundu guzia. Gizakumeok, pozik; eta, baita ikulluetako ardiak ere!; eta ori, gaueko otzak poza guztiak izozteko aiña indar gaur gabeen baduela... Erori ta erori ari bait da kazkabarra: «line-tazia»:

**Jesus ta Jesus, gauaren otza!
Jausten da linetazia;
ordu bi orretan, orrela ba'da,
il da ganadu guzia.**

BENAPARROA

Aunamendi'z aruntzko Naparroa'n, Benaparroa'n ere, jai aundi izaten da Eguberri-Jaia. Benaparroa'n, Gerezieta'ko mutillek bertso aukerak ibiltzen dira:

**Etxean, eder aitzurra;
nausiak, billo kizkurra.
Zure eskutik desira ginuke
bustitzea zintzurra.
Arroltze bat gutixe,
biga ere holaxe;
hiru eman ba'zinitzate,
zuen parerik ez laite.**

LABURDI

Ez dago urruti Gerezieta'tik Laburdi'ko Hasparren. Angoa duzu kanta zaar au. Ijitoek abesten omen dute, ikitoak ere kristauak bait dira:

**Etxeko ander galanta,
begia duzu xarmanta;
zure eskutik desio dugu
xingarra eta lukainka.**

ZUBEROA-ERRONKARI

Goazen, azkenean, Zubero maitagarriara. Eta «gisa berian Erronkari'ko irietan, 1936'garren urteko gerra xin artio». Uzta-rrutz'en, beintzat, bazkalondoan joaten ziren aurrak «karrikan barna» kantari:

Ai, Maria, Gairon-Gairona!
Sortu da Jain Ona...

Neskatoak, ordea, arrastirian ateratzen ziren, «Goazenak» kantatzen:

Goazen Ainguriei
t'Arkantxelieki
gaur kantatzera,
gaur kantatzera;
gore Erregearen,
Jinko Semiaren
adoratzera.

Badoaz artzaiak,
arinik belainak,
laster zoin leen,
laster zoin leen,
ekusi bearrez,
otoitu bearrez
Jesus Betlen'en.

OTS ! AINGURIEKI

Gua-zen Ain-gu rie-ki ta Ar-kan-txe-li-e-ki
gaur kan-ta-tze ra, gaur kan ta-tze ra,
go-re B-rre-ge-a ren Xin-ko Se-me-
a ren a-do-ra-tze ra

LEKUONA'REN BERTSO BITXI BATZU

Bukatzeko, berriz, umeentzat gaurko euskal idalerik onenak, Le-kuona'tar Imanol apaiz jaunak idatzi dituen bertso bitxi batzuk:

Trankatan, trankatan, iru Errege trankatan, trankatan, Belen'era. Belen'en jaio dan Jesus Aurtxoa trankatan, trankatan, gurtutzerara. Meltxor'ek, trankatan, zaldia beltza; Kaspar'ek, trankatan, zaldi gorri; Trankatan, trankatan, Baltasar zarrak trankatan, trankatan, zaldi txuri.



LUZA DAIGUN ESKUA

AURRAITZ

Ezeuki gogorrean munduratu ziñan,
ez etxe ta ez jantzi, aberen artean.
Baiña zure Izarraren dizdira garbiak,
poza zabaldu eban gogo onekoetan.

Larritu egin ziran, andiki ta aberats,
eurekaz nai eben, ba, munduaren ardatz.
Iraulketaren bildur, gorrotozko iskilluz,
errubakoak ilten asi ziran garratz.

Erbestera beartu, Erio'ren bildur:
guraso saminduak joka bear zigur.
Gose, lor ta atsekabe bizia zain bear:
gure Erriak badakiz onelako makur.

Zapaltzailleen menpean gogorra bizitza:
erriaren deientzat erantzun garratza.
Aukera guztiekaz goiko eta aberats,
erri menperatuak bizimodu latza.

Luza daigun eskua maitetasun beroz,
anai-artean daiten Gabonetako poz.
Alkar-maitasunean zutundu gaitazan,
urkoen neke-lorrak arintzeko asmoz.

Ez gaitazan kikildu egin-bearretan;
maitetasun-bideak edegi daiguzan,
bakez izan dagigun euskaldun-bizitza,
Nazaret'ekoaren alkartasunean.

Pozez ospatu daigun, Josu'ren jaiotza,
ezeukiai eskiñiz, biotzez, laguntza.
Menpeko ta baztertu gizartera daizan,
egin dagigun indar: ez gaitazan lotsa.



Urkoeri laguntzen dagigun aletin,
gizarteko aroa ohea izan dedin.
Alkar-maitetasuna da kristauon sena:
doguna emoteko ez gaitazan ziztrin.

Zer da maitasuna?

Esku zabaltze bat da maitasuna; emontza; urkoarenganako gogo, biotzeko ereintza; begiratu garbizko dirdira, besterantza; argia, bizia, laztan gozozko eskaintza...

Benetako negar-malkoa da maitasuna; benetako biotzondoz ixuritakoa. Itxarozko agerkunde, poz alaitasuna; eder-ikutuzko goigunez ondurikoa.

Soñanzki larrosatuz udabarria loran. Ta, udazken arratsaldezko sakontasuna aize epelean dirdai, urrezko orrietan aldarrikatuz ederrik, bizitzaren guna.

Maitasuna bizitza da, biotzaren sugarra. Da itxaso, lurra, zerua... Izatearen lurrin, egoa, lorea, ta aunitz margoren goiza, arratsa, illun-argizko ortzadarra.

MUNIAITEGI'TAR SABIN



ROBERTO ALONSO ARGAZKIA

Aralar'ko artzaiak Gabonetan

UXOLA

Aralar'ko artzaiak
gatozkitzu otoitz
zure argi dezagun
galdu gabe iñoiz;
zaindu gaitzatu beti
bekaldez eta goi
bizi nai degulako
apal zure oroitz.

Aralar'ko artzaiak,
napar ta gipuzkoar,
San Migel'en ikusi
degu zure Izar.
Eskeintzen gatozkitzu
gure txabola zar,
jaio zeran gau ontan
piztuko su ta gar.

Zuretzat badaukagu
maindire zuria,
estalirik edurrez
gure euskal mendia.
Bañan, zeruan dago
izar bat garbia,
erakusten digula
Belen'go bidia.

Badegu zuretzako
ardirik onena,
ardo napar ta gazta
eder, oberena.
Biotzean erroitu
zaigu itxaropena
Belen'en jaio baitda
Aurtxorik maitena.

«Basarri» gurekin

«Basarri», euskaldun bertsolari aundiak bidali dio agur bero bat gure Aldizkariari, berriaz ateratzen dalakoz.

Biotzez eskertzen dizkiogu «Basarri» aundiari bere oroipena ta bere txaloa. Eta aren baimenaz, argitaratzen ditugu berak aintziñean kantatu zituen bertsoak: beti gaurkoak dira, Eguberri ta Urteberri egun auetan egokienak. Gure irakurle guztiei zabaltzen diegu «Basarri» bertsolariaren biotzeko opa.

G'tar M.

«GABON-ZAR» GABEAN

Anai arrebok, ementxe nator
alaitasunez kantari;
lendabiziki, esker beroak
zeruetako Jaunari.
Gure saioak entzuten zintzo
egoten zeratenori,
«Urte Berri On!» opa dizutet,
biotz-biotzez, danori.

Urte gozo ta eztsua da
nik opa dedan urtea;
gorrotoaren izpirik gabe,
maitetasunez betea.
Komeni zaigu anaitasunez
lan egin eta jatea,
gure artean izan dedilla
zoriona ta pakea.

Urte on beza arrantzaleak;
urte on nekazariak;
urte on beza kale zuloko
langille maitagarriak.
Alaitu bitez soro-baratzak;
alaitu bitez mendiak;
irriparezka ikus ditezten
beti gure euskal erriak.

A, zer paraje amesgarria
Jainkoak eman diguna!
Garbi ta sendo iraun-aztea
guri komeni zaiguna.
Gorde ditzagun gure oiturak,
gorde izkuntza kuttuna:
au da euskaldun guzti-guztiok
daukagun eginkizuna.

Millaka urtez or iraun dute
gizalditik gizaldira;
gure denboran ez dute oiek
joan bearrik lur azpira.
Izkuntz-oiturak jaso ditzagun
merezi duten tokira;
bizi-pozikan ez dago emen
oiek ondatzen ba'dira.

BASARRI

LAGUNARI

«XALBADOR»

ALBIZU'TAR G.

Iruña'tikan goiz atera-ta,
etorri gera Urepel'a;
antxen da nere biotzan poza,
antxen da yende tropela.
Arrazoiezko bertsoen bidez
eguzkitzen zun ospela
gure «Xalbador» laguna izanak,
ez bait zan gizon txepela.
Bere aurrean danok erantzi
bear genduke txapela.

URTE-BERRION



«GAIRON-GAIRONA»

(«Oro del Eska» 'tik artruk eta uskarara utzulirik)

Estornés Lasa José

ERRONKARI'KO IRIETAN EGITAN ZENA GAI ONAREN EGUNAZ

Elurpean ortzitruk, aziek lo egitan zien. Aben-
tuarena da.

Elur eta otzen tartean, moitarzun bageko bigo-
tzen tartean sortu zen lur gainean Jainkoaren Azi
Ona, sortu Belen'en Argi Berria.

Gaion; Uskal Auñamendi'an Gaiona. «Oxanea»
zuri-zuri eta andi-andi dago. Beste mendiek, xo-
rrotxago izanik, beren punttaz urratu dei elur estal-
kia.

Etsegainen zurajeak, elurrez jantzirik, familiak
altxatan dutu. Toska-txamidren ke-maltak eta urzo-
talde baten egakada, iñon ere baratu bage urzote-
giara berriz xitan denean, bizi-señale bakotzak dra
Auñamendi'ko iri ñottoan.

Ogeita laugarren eguneko goxa da. Belagua'ko
ateñotik aizeak bultzatan du eta etsegainetatik elur-
auts egoxtan du.

Erronkari'ko Eskutu glorioso a paretan dun
etsezar baten aurkian, aur-saldo batek kantatan du,
eskuetan zakuto zuri-zuri ekunik.

Ai, Maria!
Gairon-gairona:
sortu da Jein Ona.
Natarra bitate
Urteren bitarte
Argizaya,
mirall andia.
Zutara mendatan da
mundo guzua.
Sandoro'petik dakorte.
Paradusu'ko zabala,
kanko unrra sagarra;
sagar kartarik xan lezana
Jeinaren seme eta alaba.

Jesus, Santa Maria
dakigula bafia
ilean eta bizian,
arimaren orduan.

Ollarrak txuria mundutik,
Ainguru Ona zeuritik.
Ogi Ona Ostiarako,
Ardau Ona Kalizarako,
Ketan bietan konbertitruk
Jesukristo goretako.
Ekusirik birtute
gore Jeinaren Kandelariak
graziaz beterik dakorte».



Azken estrofa kantatuz geroz, bozkariozko ira-
goka asten dra. Etseko anderiak gaztain eta etza-
gur anitx eragu eta errepartitan dutu aurrer. Aska-
ziagoak sukaltra igan-araztan dutu goxorik emoi-
tako; baya, leinik, bapanari pattata bana eskeintan
dabei, eta ekusgarri dra aurren beitate ullunak.

Etseko anderari erakustan dabei biltu deina eta
puskat berotan dra. Emazteak, txungaz, bai serioz
bai barrez, goxoen parte eskatan zabei.

Aurrak kantik erkitan dra lasterka, karrika gora
edo karrika bera xoan dren beste aurrer eltako.

Korrikaldia akabatan, sukaltien sukaldarreen
arrapaketa zenbatan dei: etzagur, gaztain, sagar
zimurtruk, ogi-roska, katamora eta beste goxo, gu-
zua tasta onenetako.

Tolosa

UXOLA

TOLOSA'KO ABESBATZ LEIAKETA



Emen bijoakizute zeintzuk izan
ziren irabazle. Entzule bezala, mu-
sikalaria ez naizelako, emanen di-
zuet nere iritzia.

Burruka latza izan zen, eta zailla
epaillarentzat. Nere iritziz, batz
beste, aurreko, urteetan baiño
obea. Agian, erbestekoak ez dira
oso goitsu egon, euskaldun abes-
batzak obeki ikasiak azaldu dire-

lako; beren jardunetan saiatua-
goak, ikasiagoak eta onduagoak,
noski.

Napar Abesbatzei dagokionez,
Leitza'koek sari berezi bat irabazi
zuten: «Sari nagusia izan ez duen
euskal abesbatz onenari» Saria.
Sari aundietara irixteko ea-ea ibi-
lliak ziren leitzarrak, puntuazioetan
aldi gutxi bait zuten bata bestea-
rengandik.

Uste dugu, atzerritarrengandik
ikasi eta onela saiatzen jarraitzen
ba'dute, gure euskal abeslariak
laister ugarituko dira beren garai-
tzak.

FOLKLORE

ABOTS NAASIETAN

- 1 Donosti Ereski Abesbatza, Donostia
- 2 Eskifaia Abesbatza, Hondarribia
- 3 Coral Bartok de Miskolc, Hungría
- 4 Coral Uniwersytetu Gdanskiego, Polonia
- 5 Coral Universitaria, La Laguna (Tenerife)
- 6 Coral Krammer Hausen, Alemania
- 7 Coral Santo Tomás de Aquino, Madrid
- 7 (Ex aequo) Jeiki Abesbatza, Leiza (Navarra)
- 9 San Ignacio Abesbatza, Donostia
- 10 Zaletasuna Abesbatza, Bilbao

- 11 Coral Nora, Sangüesa (Navarra)
- 12 Coral Tauste (Zaragoza)
- 13 Eresoinka Abesbatza, Tolosa
- 14 Coral Ensemble Vocal «Côte Basque»

ABOTS BERDIÑAK

- 1 Coral Bartok de Miskolc, Hungría
- 2 Coral «66 Girls», Yugoslavia
- 3 Coral Krammer Hausen, Alemania

POLIFONIA

ABOTS NAASIETAN

- 1 Donosti Ereski Abesbatza, Donostia
- 2 Coral Uniwersytetu Gdanskiego, Polonia
- 3 Eskifaia Abesbatza, Hondarribia
- 4 Coral Bartok de Miskolc, Hungría
- 5 Coral Universitaria, La Laguna (Tenerife)
- 6 Coral Sto. T. de Aquino, Arnaiz-Madrid
- 7 Coral Krammer Hausen, Alemania
- 7 Ex aequo, Jeiki Abesbatza, Leiza (Navarra)
- 9 San Ignacio Abesbatza, Donostia
- 10 Coral Nora, Sangüesa (Navarra)
- 11 Zaletasuna Abesbatza, Bilbao
- 12 Coral Tauste (Zaragoza)
- 13 Eresoinka Abesbatza, Tolosa
- 14 Coral Ensemble Vocal «Côte Basque»

ABOTS BERDIÑAK

- 1 Coral Bartok de Miskolc, Hungría
- 2 Coral «66 Girls», Yugoslavia
- 3 Coral Kammer Hausen, Alemania

«UXOLA»



• ERRIZ - ERRI •

Baztan

UREPELE'N, «XALBADOR» ZENAREN OMENETAN

Azaroa'ren 8'an, egun dirdiranta agerturik, ospakizun guziak arrakasta haundia ukan dute. «Xalbador» zenaren bosgarren urte-muga zela eta denbora berean bere ohoretan eraiki den oroitariaren agerpena ospatzen zela, yende aunitz bildu da Urepel'eko herrian. Egunari ospe haundia emanik, han ginuen Iruñe'ko Artxapezpiku Yaun Agurgarria.

Goizeko 10 t'erdietan Herri Meza ospatu zen gure Artxapezpikuak emana, bere ondoan 12 apez zituela. Elizkizun hunkigarriaren hasieran, Mixel, «Xalbador» zenaren semeak eta Baigorri'ko Laka'k bertso bana kantatu zuten. Artxapezpikuaren hitzaldia, herriaren kantak eta otoitzak, eta Meza guzia ere, guziz zoragarria.

Meza ondoren, «Xalbador» zenaren omenaldia, Artxapezpikuaren bedeinkazioarekin eta bertsolariaren kantaldiarekin.

Arratsaldean bertsolari besta, herriko plazan eta aterbe ederraren gerizean. Zortzi bertsolari taularen gainean. Mixel Itzaina gidari eta gai-emaile zutelarik. Bestari hastapena eman zitzaion Urepel'eko Auzapezaren agurrakin. Ondotik ari izanak dira bertsolariak; Iparralde'tik, lau: Xanpun, Ezpona, Alkat eta Mendiburu; Egoalde'tik, beste lau: Lazkao-Txiki, Lasarte, Peñagarikano eta Olalde. Bi orduz aritu dira. Bakarka, binazka eta launazka ere, mota guzietako gaiak erabili dituztela; ez dugu iñor bererik hoberena bezala, denek erakutsi bait zuten goi-mallako bertsolariaren dohaina. Entzule aunitz bildu zen eta aterbea haundia izanagatik dena bete zen. Bestaren ondarrak kantatu zuten Mihura azkaindarrak, Kelemente elizondarrak, Amorena zuarramurdiarrak eta Laka baigorriarrak. Gero, Azken-agurra zortzi bertsolariak; eta, azkenik, Mixel «Xalbador»'ek bertso hunkigarri batekin jaialdiari akaballa eman zitzaion.

«Xalbador»'en omenez egin diren ospakizunak ongi joan dira eta urepeldar gazteek lan haundia egin dute eta antolakizunak arras ongi ere. Zorionak!

SAN MARTIN EGUNA

Sasoin hunek Baztan alde huntan badauka arrakasta. San Martin

egunean maisterrak ordaintzen dio etxeke errenta bere nagusiari, eta sasoin huntan ere izaten dira «aldairek», etxez etxe aldatzea. Denbora batez baserriarren artean, eta batez ere maister bizi zirenen artean, mugimendu haundia izaten zen, etxe batetik bertzerara aldatzeak; aunitz aldiz ez zen gogoko lana eta, egia erran, ez ziren izanen denetzat egun pozgarriak, zeinbaitzuk ziren nigarran eta paimamenak yasan beharrak. Bartzuentzat «aldaire» atsegingarria bizitze hobe erdietsi zutelakotz; baina, bertzentzat, penagarri. Mundu huntako lege larria, bartzuentzat pozgarria eta bertzeentzat penagarria.

SAN MARTINETAKO BESTAK

San Martinetan baditugu bestak gure Baztan aldean. Gartzain deitzen den herri euskaldunak ospatzen du, San Martin egunean, bere besta nagusia.

Ez hain aspaldion, Berroeta'k ere egun hortan zituen bestak, baina herritarrek hala nahi eta aldatu zituzten.

Bestak ongi gan dire. San Martinak joanik, bagoazi gain-bera negu aldera.

M. IZETA

Bordaz-borda

BELARDIETAN NOIZ ETA ZENBAT ABONO BOTA

Nekazarien sakelendako belardiak ongi eta bere denboran abonatzea oso interesgarri da. Negu ondarrean, sabaiak eta belar-zuloak belarrez ustu, eta luzerna eske ez joateko, belardiei belarra leenago ekar-arazi bear zaie. Ortarako, goiz eta ongi abonatu bear da.

Udaberrian belar geiegirekin aurkitzen garanean bere momentuan ebaki eta negurako gordetzea da oberena. Orrela aziendak baitira merkeena. Dena dela, belardien potentziala aunditzeko kontseillu errez batzu eman nai genizkizueke.

NEGUAN: Abendu edo Ilbeltz'ean, iru naasketa auetariko bat bota bear duzu:

1. 550 kilo 0-14-14 abono.
2. 500 kilo «Escorias Thomas» beltza, %16'koa, 150 kilo potasa-klorurokin naasita.
3. 450 kilo superfosfato «mineral zuri» %18'koa, 150 kilo potasa-klorurokin naasita.

Udaberriko belarra aurreratu nai ba'dugu, Otsailaren asieran beeko lekuetan, edo Otsailaren ondarrean goiko lekuetan, 150 kilo %26'ko amonitro edo 100 kilo urea eda-ezazu.

Otsail'ean, neguko abonarik bota ez ba'dugu, 650 kilo 4-12-12 abono edo 325 kilo 7-24-24 bota bearko ditugu.

NITROGENODUN ABONOAK. Nitrogenoak agintzen du hektare bakoitzean zenbat buruazienda eduki aal dugun.

Argia, epeltasuna eta busti-giroa ba'da, nitrogenoz belarra erraz bultzatuko dugu; eta, belarra naikoa izatearekin pentsu gutxiago aziendei emanda, esne ta aragi geiago emango digute.

Momentu egokienak belardiei urea, edo nitrato, edo amonitro botatzeko aukerak dira:

1. Leen esan; au da, Otsail'ean.
2. Belarra ebaki ta bereala, busti-giroa eta epeltasuna ba'da.
3. Aziendek belarra «ortzez» jaten gutenean, bi aldiz pasatutakoan, bota bear da leen esandakoa: 100 kilo urea edo 150 kilo amonitro %26'koa.

OARRA. Esandako abono guztia edozein lekutan bota bear da, naiz leendik belardiak ongarrituak izan.

ION GURUTZ

Goizueta

Azkeneko igandean emen izandu dugun pesta ederrak merezi du zabalteza, beste erritako gazteek ikasi dezaten emengoak imitatzen. Badugu erri onetan mutil eta neskatx sail bat, zarreri —urtean bein— omenaldi bat egiten digutena, «Umore Ona Sailla» deitzen zaiona. Igandean, «Fiesta del Jubilado» esanez, oso pesta polita asmatu zuten.

Goizean, eguna asitzean, «itxapero»'k dingi-danba erri guzia esnatu-arazten; ondotik, erri guzitik jiraka txistulariak oso soñu argiak yoaz. Amarretan, Meza Nagusia; eta zar guzik, eztulka-etztulka, kantari! Meza ondoan, bi pillota partidu eskuzkoak; ondorean, bi bertsolari: Agirre eta Gorrotxategi, Euskalerrri'n diran onenetakoak; lenengo bertsoan, erriari agurra egitekoan, esan ziguten euskal erri askotan izaten dirala emen bezela, baña poz aundia erri onetan izandu dutela Alkate, Sekretario, Sendagille eta Botikaria denak euskeraz mintzatzean.

Bazkaria, Erriko eskoletan; asierako, naiko «entremes» edo esaten duten oietatik; arrai-zopa, legatz prejitua, solomillua; postretako, pastela edo tarta primerakoa. Bazkaria manetzen, beren borondateko andreak: Fany Eustakiona, Purita Maritto-Torrekoa, Mañoli Mielitona, Maribel Juan-Antoniona; eta maiak serbitzen, «Umore Ona»'ko motillak kamarerorik oberenari inbidirik ez diotenak.



Goizueta'ko Zeferino Berroeta bere emaztearekin. Euskalerrri'ko seme ona, beti zintzo, ordu onean eta urte txarretan

Andres Bordazpikoa, bi bertsolarietxanda ematen bere larogei urtekin, beran pare parekoa.

Bukaeran, 90 urte baño geyoko aiton-amonak, oañ modan daukaten dantza berri «Pajaritos» edo orrela deitzen dioten ori, bere gerrik ezker-eskuin ibiliz, naiko parra eragiten.

Eskerrik asko Goizueta'ko nes-

katx-mutillei! Eta beste erritako gazteak ere, iya emengoak ikusita, beste orrenbeste egiten sayatzen diran.

SEBEINO BERROETA

Xefeino:

Anitz unkitu nauzu, Xefeino, PRINCIPE DE VIANA aldizkari oni zuk bidali zigun karta ortaz. Onela diguzu:

«Goizueta'tik, San Martin egunean. Egun onek neretzat oroimen bat badu, bada gaurko egunakin, 1936'gñean. Iruña'ko kartzela edo espetxetik atera bait ninduten, egun batzuk an eduki-ta euskaltzale nintzalako».

Unkitu nauzu, benetan, oroimen ortaz. Amar urteko mutikoa nintzen ni egun negargarri aietan. Osaba arrapatu zuten eta zuk aipatu duzun lekuan sartu ere. Ene ustean, egun batzutan elkar egon ziñeten.

Nere amona anitz gorra zen; edozein lekutara joan bear zuenean, ni eramaten oi ninduen —bere magalean azita-aise mintzatzen bait nintzen berarekin.

—Ene umia, erran zidan urte artako San Franzisko Xabier'en egunean, biar xoanen gra Uruña'ra xunto, osabari lotura bat eramatra».

Eta biaramunean joan giñen Iruña'ra. Espetxeko atarian lotura uzterakoan, esan zidaten ez berriz an agertzeko, osabak ez bait zuen geiagorik bear. Eta amonari esan bear nion.

—«Kau mingoztasun, Jeina!», esan amonak; eta negar anitz. Arratsaldean itzuli giñen gure iriara, Erribera'ko Kargaztulu'ra. Eta ortaz gero, ez genuen sekulan osaba ikusi.

Eta unkitu nauzu, Xefeino, egitez ere. Zure idaz-lantxo ederra bidaltzekoan, onela diguzu:

«Len bezela, gaur ere gogoa or dago zuekin; oso zartua naiz, bait ditut larogei urte: begiak itxitzen ari dira, beartzak gogortu, eta burua ere —egunetik egunera— ariñago. Alaz ere, egiñala egingo dut lerro bat edo beste bialduz, PRINCIPE DE VIANA bizi dedin».

Eta egiñala egin duzu, egin!

Xefeino: idatzi, len bezela, zuk maite duzun aldizkari ontan; eman zaiguzu pixkaka zure biotzeko edertasuna; euskeraren alde maitasunez sufritu denean, ez dago barnean maitasuna baizik. Eta, agian, Goizueta'ko norbaitek apaiz, praile, neska, jakitun, mutil edo aur batek, zure bideari jarraituko dion, Euskera sekulan ez dedin il.

GARDE'TAR Markelin

Leiza

UDALETXEA edo Aiuntamentua konpontzen, alaitzen eta polita jartzen ari dira. Bazeukan bearra. Eskailerak, beintzat, etzan naian zebiltzan; teilatua bazituen kristoren itxurak; geienà zalantzan zegoan, ni bezela, Ormak, ez; aiek

bizkorak eta ederrak ditu, munduan baldin ba'dira. Orain kristal asko jartzen ari dira, eta paretak oriz margotzen. Margo oria ez da nere gogokoa; baiña, ortarako egin zuen Jaungoikoak. Dirudie-nez, atzelarietx gogokoa omen dute; demokrazia demokrazia da, eta kitto! Ez; ziñetan; oso polita geldituko da.

EZKURRA'KO PAKEA. Badakizue apaizak mezan esaten duena: Eman elkarri pakea!

Ezkurra'ko Abadeak ez du orain orrelakorik esaten. Ezkurrarrak lotsatu egiten omen ziren (oiturik ez nonbait) elkarri eskua ematen. Ara, Ezkurra'n mezara joaten ba'zerate, eskuak patrikan sartu lasai, alperrik luzatuko dituzue.

A. UXOTEGIETA

Mallo'petik

BETELU'ko GIROA

Xabier'ko Frantzisko Santuaren egunean jai eder eta atsegin bat egin zuten beteluarrek beren txo-koan: egunsentiko abeslarien («auroro» direlakoan) egun aundia.

Beste toki askotan bezala, Betelu'n ere galdurik zegoen aspalditxotik egunsenti, edo argidiri, edo goiznabarrean, zenbait jai-egun berezietan, errian zear karriketan barrena abesten ibiltzeko oitura zaar polit au, «auroro»'en karriketako itzulikaldiak alegia. Baiña badiara zorionez Betelu'ko auzoartean leengo oitura zaarren maitaleak, euskerarekin batean oitura zaar oien berpizteko iñaaletan ari direnak, erriko seme Urrizalki' tar Pako buru eta zuzendari dutela. Iñaalak egin dituzte ortarako, bai eta beren lanari ondore ona eman ere, egun ortan ikusi eta ikasi ginuenez.

Goizeko zazpiak aldera, ezkil otsak esnaturik, eliz-atarian bildu ziren emezortzi-ogei bat «auroro», eta txilintxa ozen bat dilin-dilindaka aurretik, itzulikaldiari asiera eman zioten, bertso auek abesten zituztela:

Egun-sentian abestia da guztion alaitasuna, orixe da Betelu errian biotzez opa deguna. Urte-muga da «auroro» talde berria sortu genduna gaur ospatzeko Nafarroa'ko Zaindariaren eguna.

Errosario Santuarekin parte artuaz erriak gaur San Franzisko Xabier'koari egin gure eskariak. Abenduaren irua da-ta, jai du Nafarro guztiak, orrengatikan emen gabilza «auroro» abeslariak.



Betelu'ko «auroro» taldea, Urrizalki'tar Pako buru eta zuzendari duela

Egun sentian abestia da guztion alaitasuna. Orixe bera dagite txoritxoak udaberriko argi-sentietan, izadi osoaren pozgarri; Betelu'n ere pozgarri izandu zen orrelako iratzartzea, fededunen dako batik bat.

Itzulikaldi ondoan arrosarioa bukatu zuten biotzki, eta gorputzari ere berea eman bear zaiola-ta, «auroroek» barua autsi zuten berealdiko kokoillo-eltzekada edo txokolatada bat artuz, naiko bixkotxo bertan bustirik.

Eguerdi-aurrean meza nagusia. Dena euskeraz. Noiz ikusiko zen olakorik Betelu'n? Eta zeinen ederki erantzuten zuen erriko neska-mutil sail jator batek! Erri osoak ere bai tarteka. Meza ederra eta sentikorra benetan! Baña denetan sentikorrena, erriko lau aurrek, bi nexkato eta bi muttiko, erriaren izenean Jainkoari egin zioten eskaintza, bertso auek kantatuz:

Auxen da poza senti dedana auspezturik nagonean, era berean ainbat kristau on badauzkat aldamenean. Pozez txoratzen arkitzen gera elkartu-ta gaudenean; nere eskeintza artu ezazu erriaren izenean.

Entzun dezagun Meza Santua anaitasun jatorrean, zein pozgarri dan Eukaristian bateratzen geranean! Kristau bidean ager dezagun gabiltzan leku denean, bide ortatik sartuko gera betiko zorionean.

Meza Nagusia eder-ederra izan bazitzaigun, ainbat eder izan zitzaigun aur sail batek, zortzi-amar bat nexkato-muttiko, meza ondoan eliz-atarian egin ziguten txistu joldia. Txoraturik egon giñen berai entzuten, eta ez genekien zer geiago goraiatu, aurren trebetasuna ala erakusleen egonari edo pazientzia eta iraupena. Esan zidatenez, Lekunberri'ko apezta eta leen aipatutako erriko seme jator Urrizalki jauna izandu dira erakusleak. Bejondaizuela! Beste gauza on askoen artean, gibelondo .ona daukazue, agiri denez! Jarrai bide ortatik, noizean bein ostikoren bat

edo beste artuko bide baduzue ere!

Eta, jakiña, eguerdian auzo-arteko bazkaria. Bazkari ona eta goxoa, olako jai eder bati zegokiona: oso ongi prestatua, oso ongi serbitua eta Lizartza'ko auspojtzaille

trebeak bere kordionarekin goxokatua eta bere bertsoekin atsegindua. Goiznabarreko itzulikaldian eta meza nagusian abestu ziren bertsoak ere berak asmatutakoak omen ziren.

Erabat esan dezagun gauza oneder asko ikusi ginuela egun ortan Betelu'n. Baiño nik gauza bat nabarituko nuke besteen artean: ekiñaldi guzietan erri osoak parte artu zuela. An ez zegoen bereixkeririk, ez inki-minkirik. Denak zeuden an eta denak pozik, elkar arturik. Aitona eta amona, guraso eta aurduntzi, adiñeko eta gazte, neska eta mutil, muttiko eta nexkato, besoetako ume, denetatik zegoen an eta denak alai eta pozik ibilli ziren, ederki bazkaldu ondoan, kantari ala dantzari.

Ez al da eder, gaurko giro naas, moker, girbin eta aserrekorrean olako erri elkartasuna ikustea? Bai, alajainkoa! Zorionak, Betelu, eta jarrai ortan!

«ELOSTA'ko ZOZOA»

Garazi

DONIBANE'KO HIRI-MURRU HANDIEN ONDOAN

Otto Pettan maitia,

Lehenik, desiratzen dauxut urte berri zorionsu bat, ezin higitzko osagarri batekin. Zoin ontsa izan behar xiren, bero-beroa, Amerike'tako iruzki ederrian! Han, uda eta hemen aldiz, negia. Garazi'n elur guti, baina euria jeuts ahala, itsas aldeko ekaitzarekin. Gaixo artzainak mendietan! Zorionez, gure artaldiak itzuli ditxu aski goiz behereko bordetarat.

Orai diela aste bat, Ikastolatik ateratzian, Eñaut eta biak joan gitxu jostatzerat Doniban'eko hiri-murru handien ondoan. Uste ginixin, lehengo gudu-toki horietan atxemanen giniela arma zahar zorbait edo gerlen denborako burdin puska batzu. Bana harat etorri orduko, zer zikinkeria! Dena lapar, asun eta harri aurtikiak. Zer gerlak izan behar ziren hiri bazter huntan, hola erorarazteko harresi eder horiek! Xuk Otto Pettan, jakintsuna baixira, erran behar datasu nungoak eta nor ote ziren etsaiak. Alemanak? Españolak? Anglesak? Ene adixkide Eñaut'en arabera, Napoleon tzar huak, gaixtakeriaz barreatu zixin murru batzu, hemen gaindi ibiltzen zelarrik. Eta geroztik, Garazi'ko haurrek ari ditxu oihuka edo kantuz:


Napoleon Bonapart;
ehun zorri ta mila partz;
taloz ase ta zalapart!

Bere aldetik, Aitatzik erran diaxu lehengo gerlek etzuztela murru horiek biziki andeatu, eta egia ertereko, Paristar diru-gose zorbait direla hobendun. Hek egin zitxien orai ikusten ahal diren ziladurak, behar zutela hortik pasarazi alimaleko kamiun batzu, pagoz eta haitzez bete-betiak. Burrumbaka menditik beiti heldu zitxun omen, sekulako kalapitan, eta gero joaiten Baiona'ri buruz. Beraz, tratulant madarikatu horiek, hola suntsitu zitxien Garazi'ko oihan ederrerenak, eta azen ontzeko, gure harginkeriak aurtiki. Zer debru zuten gogoan? Ene ustez, aise zuxun bazterretik ibiltzia, gure hiria funditu gabe. Hauxe da jende zozoak! Agian, heldu diren urtetan, Garazi'ko herritarrek berriko ditxie hiri-murru handiak behar den bezala. Eta segurki, turiztak ere arras kontent izanen txu!

Beste aldan, erranen dataxu, hea Amerike'tan ere ba'direnez hemen bezalako jende zozoak. Eta gaixtoak bilatatzen direlarrik, zer gertatzen zeien.

Hortan, uzten xituz, Otto Pettan maitia. Baniaxu amaren laguntzerat etxeko lanetan. Igortzen dauzkitxut ene pott handienak. Izan ontsa eta bestalde artio.

GILEN



KIROLAK

Aizkolarien Txapelketa

MINDEGIA NAPARRA DUGU AURTEN EUSKALERRI'KO AIZKOLARIEN TXAPELDUN

Tolosa'ko Zezen-plazan jokatu berria da «Euzkadi'ko Aizkolarien Txapelketa».

Sei aizkolari enborren gaiñean zutik! Jendeen begiak, ordea, birrenganantz abiatu ziren asiera-

asieratik. Bi oiek: Mindegia naparra eta Il'gn. Arria gipuzkoarra. Azkeneko au izango zela garaille uste zuen plazako gende guziak, eta bere alde atera zen dirue. Gauzak, ordea, beste era batera gertatu ziren eta, napar bat, Mindegia dugu aurtan EuskalERRI'ko aizkolarien Txapelkun.

MARKA

ARRIGARRI BAT

Alaxe da, zinez, igandean, abenduak 20, Iñaki Perurena'k bere errian egindakoa. Or geldituko da istorirako jasoa.

Bi jasoaldi eman zizkion 275 kiloko arkaitz ikaragarriari; orain artio berak jaso-tako arririk astunena, 270 kilokoa zan.

Bigarren tanda 225 kilokoarekin egin zuan, baiña esku bakarrez baliatuz. Iru jasoaldi eman zizkion, alajaiña, jende dana zoraturuz.

Ez dirudi sinistekoa, baiña egia utsa izaki. Emezortzi arrua esku bakarrakin!

Lanak bukatu ondoren, teleponoz itzegin nuan Iñaki'rekin; oso pozik zegoan! Ez da gutxiagotarako!

BASARRI

Iñaki Perurena, noraiño?

ION ZENARI

Txikia nintzela, noizen bein gizonen batek eun kilo bizkarrera jaso zituela entzuten ba'genuen, bere paretik igarotzekoan zearka zearka beetik gorako begirada bat botatzen genion.

Gaur egun, gizonak arritzeko kemena galdu duenez, berreun kilo jasotzera ailegatu izanarren, bere aurrean batere lotsatu gabe segitzen dugu aurrera.

Bainan gauza guziek beren neurria izaten dute eta, bat batean, dena garestitzen ari dela esaten duten egunkari orietako batetan, gazte batek 275 kilo jaso dituela irakurtzen dugunean, joiñol, gure gainera erortzeko arriskuan dagoen arria ba'litz bezelako keinu bat egiten dugu, lepoko euliak ikaratu naian bezela.

Egia, esan, beldur gara aurrerakoan txoririk gabe gelditu bear ko ote dugun, ikaratu eta iges joanen zaizkigulako. Zer dira bada Iñaki'rentzat eun edo berreun kilotako arriak? Umetxoek txoriak iltzeko bear izaten dituzten oriek bezelatsu baizik...

Bainan, bromak broma, entzun zaiogun berari, bere itzak gureak baino geiago balioko du eta.

P.V.—Zer moduz, Iñaki, Abenduaren 20an egindako saio orretan?

Iña.—Ongi esan bear ko. Neronen marka autsi nien beti ere eta, jendea ere pozik gelditu zelakoan negok, ango txaloak entzun ondoren.

P.V.—275 kilotako arria uen noski?

Iña.—Bai, 275 kilotakoa eta gainera 225 etakoa ezkerrez.

P.V.—Denetara, zenbat jasoaldi?

Iña.—275 etako arria bi aldiz jaso nien bost minututako txanda bakarrean. Leendabiziko jasoaldia 16 segundotan egin nien, bigarrena 3 minutu eta 55 segundotan.

225 kilotakoa berriz, esan didan bezela, ezkerrez goratu bearra nien. Iru jasoaldi egin nitien. Aurrenekoa 15 segundotan, bigarrena 2 minutu eta 10 segundotan; azkena, 4 minutu eta 19 segundotan.

P.V.—Orrelako arri puska ikusi eta, otzikarak sartzen zaizkiguk. Ez al duk bein ere egunen batean bertan geldituko ote aizen pentsatu izan?

Iña.—Gauza guziek beren arriskua ditek; i; baiñan bear den bezela prestatuz geroz, ez zeidek iduritzen ainbestetarako denik.

P.V.—Noraino ailegatzea naiko uke?

Iña.—Nai, nai, aal dudan urrutiraino. Orain, ez jakin gorputzak iraungo duen. Gainera, orretarako denbora asko bear diat, entrenamentuetarako eta abar; ez diat nai aine artzen.

P.V.—Orain arte, marka guziak autsi egiten direla ikusi izan diagu. Ire marka oriek autsi daitezkeela iduritzen al zaik?

Iña.—Autsiko ez dituk ba? Baita neronek ere beta ba'nu. P.V.—Beste norbaitek auste gerotan, zer bear ko ote lizek?

Iña.—Batez ere gorputz geiago. Begirazak, Urtain'ek metro eta larogei zentimetro zizkian gutxi gora. Bere ondoren Endañeta etorri uen, piskaren bat aundiagoa uen eta aren markak bereala autsi zizkian. Urrena'ni ailegatu nituen eta aiek baino aundiagoa izatean, bien markak autsi dizkiat.

Orregatik, beste arrijasotzaile pisu aundiagokoa aterako ba'litz, nere markak bereala autsiko lizkikek.

P.V.—Arrijasotzaileak oraindaino Gipuzkoa eta Bizkaia'n sortu izan dituk batez ere. Naparroa'n oiartzun aundia artzen ari al aiz?

Iña.—Ni leku askotara joan izan nauk. Nere irudituz, denetan pozik gelditu izan dituk. Orain, ez ditek kirol bat bezela ikusten, folklore bezela baizik. Banaka banaka atera zitezkek, bainan bestela, organizazio bezela, ez zeidek iduritzen.

P.V.—Iñaki, eskua biotzean jarrita, ire birtuterik aundiena eta iri falta zaikena?

Iña.—Birtute aldeko ori zaila duk, motel. Ez zekiak bada, besteek esan bear ko ditek. Akats aldetik berriz, asko. Denbora gutxi entrenamentuetarako, teknika aldetik ere asko ikasi bearra oraindik eta abar.

P.V.—Esate baterako, ezkondu berria aiz. Zer dio ire emazteak arrijasotzeari buruz?

Iña.—Emaztea pozik, berak ez dik ezer egin bear eta... Ez baiñan, oso gogo onez artzen dik.

P.V.—Eta semeren batek orretarako afizioa izanen ba'lu?

Iña.—Orixe nai nitek, nik ikasi dudana erakusteko eta aal dudan aine laguntzeko.

P.V.—Ire ondoren, iñor ez, esan bear ko genikek emen ere, baiñan, iñor orren urrena zein jarriko ukek?


Iña.—Goenatxo; 26 urte dizkik, baiña ni baiño beranduago asi uen eta Endeñeta'ren markak autsi dizkik.

Goenatxo iduritzen zaiogure Iñaki'ri bere urrengoa, etorkizun aundiko mutila bezela jotzen du ura, gainera oraindik gaztea omen da.

Eta, 26 urte dituen gaztea ba'da, zer esan, berak bezela, bi urte gutxiago dituenarengatik?



Nork esan bear zuen EuskalERRIA'n mailla ortako indartsu bat sortu zitekeanik...




SUMARIO

- ETA LURREAN PAKEA.** Paz, palabra de todos, anhelo de muchos, realidad ¿en dónde? ¿en cuántos?
DEABRUKERIZKO «JAIOTZA». Se habla de amor, paz y vida. Y el erromonido «belén» picassiano evoca odios, guerras y muerte.
- EUSKALERRI'KO LEIOA.** Ventanal de Euskalerria. Noticias de aquí y de allí.
ASKI OMEN GERNIKA'Z. El «Gernika» ja Madrid! Y a los cuatro días empacho de Gernika...
- IPARRAGIRRE TA TIERNO GALVAN.** Homenaje en Madrid; una buena lección del Profesor y Alcalde socialista.
- AITA SANTUA ERRUSI'RA?** El Papa no rehuiría un viaje al Este. ¿A Rusia? ¿Y por qué no?, contestó. Y hoy, sobre todo, a su doliente Polonia.
- «MARI BELTZA».** Una deliciosa página de P. Baroja, el «Medicu zarra» de Cestona, traducida por nuestro viejo colaborador MEDIKU ZAARRA.
- NORA JOAN EZ ZEKITEN KARTAK.** Las cartas que no sabían a dónde ir. Un cuento que no es tan «cuento». Escribe J. L. GARCIA-FALCES; traduce B. ORONOZ
- 10 BERTSOLARIA. Baroja: 25 años. DUNIXI. Aguberriak kantutan, EGI'TAR BI,** recorrido musical, navideño, de los rincones de Euskalerria. Colaboración de Ibai-ertz, Basarri, Albizu, Uxola, Muniategi, Aurraitz y de D. Miguel de Unamuno. (Si, Unamuno, al Niño Jesús, en verso y en euskera!).
- «GAIRON-GAIRONA».** Navidad roncalesa en euskara roncalés. J. ESTORNES LASA.
- ERRIZ-ERRI. TOLOSA musical. UXOLA; BAZ-TAN festivo, M. IZETA; Abonado de prados, ION GURUTZ; GOIZUETA, cordial con sus ancianos, C. BERROETA; y a Sebeino Berroeta, de todo corazón, M. Garde, MALLO'PETIK; hoy, BETELU, ELOSTA'KO ZOZOA; LEIZA, A. UXATEGIETA; GARAZI, GILEN desde la Sexta Merindad.**
- KIROLAK:** Mindegia Campeón de Aizkolaris. «Perurena, ¿hasta dónde?», le entrevista ION ZENARI.
- PIO BAROJA'RI OMENALDI BIKAIÑENA.** El mejor homenaje el de Julio Caro Baroja. En servicio a la Cultura deposita en el Museo de Navarra la valiosa colección de grabados demoniónicos de su tío para provecho de muchos. ¡Gracias! M.G.
«URTXINTXA», libros de iniciación escolar en euskera adecuados por T. Uribeetxeberria y Rosa Miren Pagola.

Bere eriotzaren XXV-gn. urtebetean, eta sortu zenetik orain 109 urte diren egunean

Pio Baroja'ri omenaldi bikaiñena

XIX-gn. mendeko irudien bilduma baliotsua, osabarena zena, utzi du J. Caro Baroja'k Naparroa'ko Erakustoki edo Museoa.



Begoña'ko Eliza; aldameneko etxean, balkoian, zauritu zuten Zumalakarregi, karlisten Buruzagia, Bilbao uria estutu zenean. (Baroja Bildumaren irudi bat)

Pio Baroja idazleari, bere eriotzaren XXV-gn. urteburuko aitzakiz, aurten ainbeste eskeiñitako omenaldietan, Caro Baroja'rena dugu guzien nabarmena.

Alde batetik, illobarena da. Baroja'ri buruzko gauzetan, D. Julio'k bearrez, Baroxa'tar baten biotz-ikara ixuriko du.

Beste aldetik, Kondairaren alorrean eta onen ingurukoetan mugitzen da Caro Baroja, eta gai orrekin zer ikusirik du berak egin duenak.

Ain zuzen, Julio Caro Baroja'k, osabarena zen bilduma, 1500 irudiz osaturik, utzi dio Napar Diputazioari txalo-

garrizko asmo onez: guziek ikus lezaketek XIX-garren. mendeko irudien bilduma ori, aipatutako mendea obeki ezagutzeko.

Ori da Julio Caro Baroja'k osabari egin dion omenaldi ederra, baita Yakinztzari mesede aundia ere. Bere emaitza egin berria du egun gogoangarrian benetan, Abendua'ren 28'an sortu bait zen Boroxa'tarren fama-tuena.

Garrantzitsua, zalantzarik gabe, bilduma ori. Argazkia edo fotografia idoro baiño lenago, marrazki ta iduri ongi egiñak ditugu bide bakarra antziñakoa erakusten diguna: gizona ta orduko giroa.

Euskaldunentzat, batez ere, garrantzi aundienetako ia zaigu joan den mendea, naiz «XIX-gn. mende ttuntun ori» norbaitek esan. Ez dezagun aztu aren egunetan lurrun-indarra ta argi-indarra menperatu zituela gizonak; Euskalerria'k ikusi bi gerrate galgarri ta Foruen kentze kaltegarria, baita euskal nortasunaren pizkundea ere; eta biziaren alde guzietan, izugarritzko aldaketa izan zela XIX-gn. mendean zear.

Emandako bildumaren balioa ikusirik, Forudun Diputazioak erabaki du Naparroa'ko Erakustoki edo Museoa areto berezi bat prestatzea, Baroja'ren irudiak erakusteko; ta prestatze ori egoki egiteko, 700 mille pezta eta geiago erabilli daitezkeela.

Beste erabakia artu du ere Diputazioak: Forudun Erakundearen eskerona Caro Baroja Jaunari biziki adieraztea. Ber-bera egin bear dugu napar guziek, jakintzale guziek.

GARDE'TAR M.

«URTXINTXA» LIBURUEN BILDUMA

Pozik aurkezten ditugu «Urtxintxa» izeneko liburuen Bilduma: ume baten lenengo liburuak, aurrerantz ta irakurtzen eta idazten erakusteko liburuak.

Liburuak, Santillana'renak dira; gure umeendako bereziki egokitu ta osatu dituzte Tomas Uribeetxeberria, B.B.B.'ko Katedratikoak eta bere emaztea den Rosa Miren Pagola'k. Rosa Miren, Maistra dena, aspaldian Iruña'ko ikastoletan ibillia, goi-maillako ikasketan dabil orain.

Onuragarriak, benetan, liburu auek; eta aurrentzat atsegiñenak ere, orrenbeste marrazki ta edergailluz.

Ar bezate egille maiteek uzta ugari euskal eziketaren alorrean.

G.M.

